



## 05. urtarrila

### HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN LAN EGITEN DUTEN HEZITZAILEENTZAKO HASIERAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA.

Nahiz eta argitaratutako zirkularrean 7 ikastaro izango direla aipatu, **ikastaro bakarra** izango da 7 herri ezberdinetan eskainita:

**Araban: (1)** Vitoria-Gasteiz Monseñor Estenaga, 1 (Centro Loyola).

**Bizkaian: (3)** Bilbo Simón Bolívar, 8 b (FUNDACIÓN EDE).

**Gipuzkoan: (3)**

- Eskoriatza MUko HUHEZI Fakultatean.
- Donostia (tokia zehazteke dago).
- Tolosa (tokia zehazteke dago).

Ikastaro bakoitzak **25 plaza** izango ditu.

Ordutegiari dagokionean **25 ordu bertan** egitekoak izango dira, beste **5 norbanakoak** lantzeko izango diren bitartean. Ordutegi hau laneko **ordutegitik kanpoko** izango da eta hainbat kasuetan **larunbatetan** ere gauzatuko litzateke.

**Epea:** 2004ko abenduak 30etik 2005eko urtarrilak 21a arte (biak barne).

**LABek, argi eta garbi ikusten du, Partzuergoak formakuntzan ez duela batere inbertsiorik egin nahi eta langileen bizkarretan uzten duela; eta hori, sindikatu honetatik, onartezina dela esaten dugu! Ikastaroak lanorduz kanpokoak dira; eta hainbat kasuetan, larunbatetara ere zabaldu da formakuntza ikastaroen ordutegia. Langilegoaren formakuntzan Haurreskolak Partzuergotik ere parte hartu beharko zutela pentsatzen dugu. Egindako deialdia erabat okerra dela salatzen dugu, ez baita zilegi orduz kanpoko eta larunbatetarako formakuntzara langileria behartzea, zerbaitetarako baitaude ordezkoen zerrendak!**

#### HH 1. ZIKLOAN JARDUTEKO TITULAZIOA LORTZEKO IKASTAROA.

2004ko abenduaren 28an Hezkuntza sailburuordearen 2004ko abenduaren 13ko Ebazpena, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloan jarduteko behar den titulazioa ez duten profesionalak gaitzeko ikastaroaren deialdia egiten dena, EHAAn argitaratu da.

**Eskatzailearen betebeharra:**

Azken 10 ikasturteak barne hartuta, gutxienez hirutan baimena duten 3 urtetik beherako haurren zentroetan, hezkuntza edota laguntza lanetan, behar egin izana.

**Epea:**

2005eko urtarrilaren 12ra arte, egun hau barne, egongo da irekita.

Informazio gehiago nahi izanez gero, DEITU LASAI!

Euskal Herrian, 2005eko urtarrila

[www.labsindikatu.org](http://www.labsindikatu.org)

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraldean
Bueno Monreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde Zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi, 1 behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 472 709 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martxelo Zelaieta, 75-2A 31001 Iruñea Telf.: 948 210 422 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	13 Marengo Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona @labsindikatu.org